

# BALIO PROPOSAMENA

---



**DARGIA** dantza ikastaroak eskaini eta dantza honen bitartez behar aina elektrizitate lortzeko lan egingo duen enpresa da. Gure enpresaren izenaren jatorria berezia da; *da-* (dantza) eta *argia* hitzen baturatik dator eta. Gure herrian beste dantza eskola batzuk egon arren, ez dago enpresarik gu bezalako gertutasunarekin energia garbien inguruan hausnartzea egiten diena herritarrei. Gainera, inoiz ez da energia garbia herritarren parte hartzearekin ustiatu, eta haurren nahiz herritar helduenen artean elkarrekikotasunaren ideia positiboa zabaltzeko ezin hobea litzake hau. Hau guztia kontuan hartuta, dantza ikastola bat eraikitzea erabaki dugu. Hemen gure bezeroen ongizatea bultzatzeaz gain energia garbia lortu eta horrela gure lokaleko autosufizientzia energetikoa ahalbidetuko dugu.

Horrela, gure helburu nagusia energia berriztagarri mota honi merezi duen ahotsa eta garrantzia ematea da, aldi berean kirol baten praktika sustatzen eta osasuna bermatzen dugun bitartean, ez dago eta gizakiontzat energia zinetikoa baina garrantzitsuagorik.

Ikastola hau martxan jartzeko, ate irekien jardunaldia eskainiko dugu bezeroek instalazioak aurrez aurre ikusi ahal izateko eta bakoitzak balorazio pertsonal bat egiteko gure proiektuaren inguruan. Irailaren 1a ostirala aukeratu dugu ekitaldi hau egiteko, eta arratsaldean hasi eta iluntzeraino aperitiboak eskainiko ditugu. Ekitaldi honetara gure herriko alkatea eta hainbat figura publiko gonbidatuko ditugu, proiektu hau herri mailan zabaltzeko nahi dugulako. Uste dugu gure energia zinetikoa lortzeko sistema udalak herriko beste hainbat lekutan ere ezartzea positiboa litekeela, beraz herri mailan lehen pausoa guk ematea beharrezkoa da, mundu guztiak honen erabilgarritasuna ikusi ahal izateko. Gure enpresaren nahiz egun honetako ekintzaren inguruan informazioa modu masiboan zabaltzeko helburuarekin herriko aldizkarian gure proiektuaren inguruko artikulu bat argitaratuko dugu eta sare sozialetan ezagutaraziko dugu hau, garrantzitsua iruditzen zaigulako Euskal Herri mailan ere dantzaren bitartez jasotako energia zinetikoaren erabilera praktikoa posiblea dela gaur egun, etorkizuneko kontua badirudi ere.



Bestalde, iraileko hasierako beste egun batean gaztetxoentzako dantza lehiaketa bat antolatuko dugu. Hau herriko bi eskoletan jakinaraziko dugu. Hori balitz, irailak 1eko ate irekien jardunaldian eta dantza lehiaketaren egunean zozketa batentzako papeletak salduko ditugu, eta irabazleak hiru hilabetez gure ikastaroak dohain jasotzeko aukera izango du.

Azkenik, Bizum eta Paypal kontuak izango ditugu enpresaren izenean, baina bertan txartelak eta diru fisikoa ere onartuko ditugu, teknologia berriei egokitzea garrantzitsua dela dakigulako, hori da eta **DARGIA**ren funtsa, baina badakigulako mundu guztiak ez dituela plataforma hauek erabiltzen; herriko biztanle helduenek, adibidez.

Hau da gure proiektuaren logoa, argia sortuko duten oinatzak dira eta dantzaren bidez lortu nahi duguna.

